



# Nola eratu elkarte bat



**boluntarioria eta parte-hartzerako agentzia**  
agencia para el voluntariado y la participación social





Egilea: Soledad Calderón

Diseinu grafikoa: ST3 Elkartea

Sarrera .....	5
Zer da elkartea? .....	6
Nortzuek era dezakete elkartea? .....	7
<b>Elkartea eratzeko hamar urrats .....</b>	<b>9</b>
1.- Gutxienez, hiru elkartekide.....	9
2.- Arauez hornituko gara.....	9
3.- Elkartea eraz eratuko dugu .....	11
4.- Erregistratzeko behar izango ditugun agiriak .....	13
5.- Inskripzioa aurkeztuko dugu .....	13
6.- Inskripzioa berretsi egingo digute.....	13
7.- Liburuak zigilatuko ditugu.....	14
8.- I.F.K. emango digute.....	14
9.- Bankura joango gara .....	14
10.- Eta oraindik badaude beste erregistro batzuk..	15
<b>Dix démarches pour créer une association .....</b>	<b>16</b>
<b>Elkarteen arautegia eta eginbeharrak.....</b>	<b>17</b>
<b>Onura publikoko deklarazioa .....</b>	<b>18</b>


\* Argitalpen hau erabilgarri dago [www.bolunta.org](http://www.bolunta.org) web gunean beste material osagarri batzuekin batera.

aurki  
bidea

5  
6  
7  
9  
9  
9  
11  
13  
13  
13  
14  
14  
14  
14  
15  
16  
17  
18



1  
2  
3  
4  
5  
6  
7  
8  
9  
10



Norberak guztien ongian konprometitzea erabaki dezala da, gizartearen garapenean elkartasunez parte hartzeko lehen betekizuna. Erabaki hori hartu ondoren, gogoko ditugun ezaugarriak dauzkan eta gure igurikimenak betetzen dituen erakunde batean sartzea izango da emango dugun lehen urratsa. Horrelako erakunderik ez badago, berriz, helburu eta kezka berberak dituzten pertsonekin bat egiteko asmotan ibiliko gara, elkarte bat eratzeke asmoz. Gerta daiteke ere, erakundeek beraiek plataforma erkideak eratzea, guztien lana koordinatzeko, guztien ahaleginak errentagarri bilakatzeko eta gizartean eragin handiagoa izateko. Bi kasuotan, ordea, galdera bera egingo da: nola egingo dugu?

Eskuliburu hau, edonolako erakundea (pertsonek kopuru jakinak osatutako elkarteak nahiz badauden erakundeen federazioak) eratzea errazteko beharrezko argibideak emateko helburuarekin egin da. Esaterako, zein izapide eskatuko den, zein agiri aurkeztu beharko den, zein legegintza arautuko duen, zein erakundetara joan beharko den... Gai hauek guztiak eta gehiago, edozein partikularrek, erakundeek edo parte-hartzea sustatzen erantzukizuna duen pertsonak nola jokatu jakin dezan.

# sarrera

# zer da elkartea

Oinarrizko **4** elementuen bidez definituko dugu elkartea. Horra hor:

**1** **Pertsona juridikoa**, hainbat pertsonak edo taldek osaturikoa.

**2** **Interes partekatua du**, xede partikular edo orokorrarekin eratzen da, elkartekideek partekatzen dutenarekin.

**3** **Irabazi-asmorik gabea**, elkar-tearen mozkinak, ondarea, dirua, etab., ezingo dira elkartekideen artean banatu; elkar-tearen xedea betetzeko erabiliko dira.

**4** **Jardun demokratikoa**, elkartekide guztiek dituzte eskubide eta eginbe-har berberak, eta batzar nagusia da organo erabakitzaile goren-a.

# Nor- tzuek

Edozein **pertsona fisikok edo juridikok**, baldin eta betekizun hauek betetzen badituzte:

- 1 • sustatzaileak adin nagusikoak izatea, adingabeko emantzipatuak izatea (16 urtetik gorakoak eta beregain bizi direnak) edo adingabeko emantzipatugabeak izatea (euren legezko tutoreen baimena badute);
- 2 • jarduteko gaitasuna edukitzea, norik bere ekintzen erantzule izatea legez;
- 3 • beste pertsona edo erakunde batzuekin batera egitea, 3 kide edo hortik gora kide izanik.

Atzerritarrek, pertsona fisikoak direnez, elkarteak eratzeko edo elkartekide izateko eskubidea dute, betiere kasuz kasuko legeria ezargariaren arabera.



1.

2.

3.

4.

5.

6.

7.

8.

9.

10.

# 10 urrats

## 1

### Gutxienez, hiru elkartekide

Gutxienez, hiru pertsona, fisiko edo juridiko, izango dira, elkartea eratzeke asmoa dutenak eta xedearekin bat egiten dutenak.

## 2

### Arauez hornituko gara

Estatutuak taxutuko dira, hots, elkartearen jarduna zuzenduko duen, helburuak mugatuko dituen eta antolamendu-eredua ezarriko duen arautegia. Legeak gutxieneke edukia xedatu du, eta eduki horri beste xedapen batzuk gehi dakizkioke, baldin eta legearen kontrakoak edo elkartearen printzipioen kontrakoak ez badira.

Estatutuetan honako hauek jasoko dira, gutxienez:

- **Izena.** Estatutuen xedeak edo xede nagusia aipatu beharko ditu izenak ahalik eta zehatzen. Inskribatutako gainerako elkarteetatik bereizi beharko du gainera.
- Elkartearen **xedeak eta jarduerak**, zehatz-mehatz eta banan-banan aipatuko direnak.
- Elkartearen **iraupena**, epegabeki eratzten ez bada behintzat.
- **Elkartearen helbidea.** Toki publikoa bada, dagokionak egindako ziurtapen-baimena erantsi beharko da. Elkartekide baten helbidea bada, behin-behinekotasuna jasota geratuko da.

- **Lurralde-eremua.** Elkarateak EAEn egingo ditu nagusiki bere eginkizunak, noiz edo noiz, EAetik kanpo egin ahal izango baditu ere. Garapenerako lankidetzan eta laguntza humanitarioan diharduten erakundeak badira, nahikoa izango da EAEn eratuta egotea. Erakundearen jarduketa-eremua handiagoa bada, estatuko erregistroan erregistratu beharko da. ([www.mir.es/SGACAVT/asociaciones/inscripcion](http://www.mir.es/SGACAVT/asociaciones/inscripcion)).
- **Batzar nagusia eraz eratzeko betekizunak,** batzar nagusiaren eskudantziak eta eskumenak; bilerak eta eztabaidak egiteko arauak; erabakiak hartzeko arauak, eta batzar nagusiaren aparteko deialdia eskatzeko elkartekideen gutxieneko ehunekoa.
- **Karguak hautatu eta ordezkatzeko betekizunak eta jardunbidea:** presidentea, idazkaria eta diruzaina, edo kide anitzeko organoko kideak (aukera hau aukeratuko balitz). Euren eskudantziak eta eskumenak zehaztuko dira, baita karguen iraupena, kargu-uztearen zioak eta erabakiak hartzeko arauak ere.
- Elkartekidegaiak **onartzeko** eta parte-hartzaileei **baja emateko** eta parte-hartzaileak **kanporatzeko betekizunak.**
- **Elkartekideen eskubideak eta eginbeharrak.** Elkartekideek kuotak ez ordaintzeagatik izango dituzten ondorioak ere jasoko dira, nahi izanez gero.
- **Administrazio-, kontabilitate- eta dokumentazio-araubidea,** baita elkaratearen ekitaldiaren itxiera-data ere.
- **Zehatzeko araubidea,** elkartekideen hutsegiteak zehatzeko.
- **Hasierako ondarea eta baliabide ekonomikoak,** elkarateak bere jardunean erabiliko dituenak.
- **Estatutuak aldatzeko jardunbidea.**
- **Elkaratea desegiteko zioak eta ondarearen erabilera edo helburua,** elkaratea deseginez gero, elkaratearen irabazi-asmorik eza hutsaldu gabe.

### 3. Elkartea eraz eratuko dugu

Elkartea eratu nahi duten pertsonak, hots, bazkide sortzaileek, lehen bilera ofiziala egingo dute, gai hauetaz aritzeko:

- elkartearen eraketa erabakitzeke eta estatutuak onesteko;
- karguak eta aginte-organoak hautatzeko;
- eratze-akta egiteko. Akta horretan, elkartzeko nahia eta elkartea erregistroan nork (pertsona hau, 4. urratsean, hots, inskripzio-eskabidean, ere agertuko da) inskribatuko duen jasoko da idatziz. Estatutuak erantsiko dira. Akta agiri publikoa (notarioaren aurrean) nahiz pribatua (elkartekideen artean) izan daiteke.

Aginte-organo ohikoena, “zuzendaritza-batzordea” izenekoa da, baina ez du nahitaez izen hori izan behar, ezta egotea ere, batzarrak berak har baititzake bere gain batzorde horren zereginak. Hala ere, “presidentea”, “idazkaria” eta “diruzaina” hiru karguak gutxienez hautatu beharko dira nahitaez. Horra hor, karguon eskudantziak:

#### **Presidentea (nahitaezkoa)**

- Elkartea zuzendu eta ordezkatzeko du, batzarrak eta zuzendaritza-batzordeak eskuordetuta.
- Batzar nagusiaren eta zuzendaritza-batzordearen eztabaiden buru da eta eztabaidak zuzentzen ditu.
- Batzar nagusiaren eta zuzendaritza-batzordearen bileretara deitzen du.
- Idazkariak eta diruzainak aurkezten dizkioten aktak, agiriak eta ziurtagiriak berraztertzen ditu.

#### **Presidenteordea (aukerakoa)**

- Presidenteari laguntzen dio, eta presidentea ez dagoenean, horren zereginak hartzen ditu bere gain.
- Presidentetza bete gabe dagoenean, presidentearen zereginak hartuko ditu bere gain, norbaitek ordezkatu arte edo batzar nagusiak berretsi arte.

#### **Idazkaria (nahitaezkoa)**

- Dokumentazioaz arduratzen da, baita elkartekideen liburua egunean izateaz ere.

- Batzar nagusiaren eta zuzendaritza-batzordearen bileren aktak egin, idatzi eta sinatzen ditu.
- Ziurtagiriak idatzi eta baimentzen ditu.

### **Diruzaina (nahitaezkoa)**

- Elkartearen baliabideen erantzule da.
- Aurrekontua eta balantzea egiten ditu, eta kontuen azken garbiketa edo likidazioa egiten du.
- Kontabilitate-liburuez arduratzen da.
- Kuoten ordainagiriak eta diruzaintzaren gainerako agiriak sinatzen ditu.
- Aldez aurretik presidentek ikus-onetsitako fakturak ordaintzen ditu.
- Elkarteari bere zergen ordainketa egunean daukala jakinarazteaz arduratzen da.

### **Batzordekideak (aukerakoa)**

- Egitasmoak egiten dituzte, zuzendaritza-batzordeak enkargatuta edota euren ekimenez, betiere zuzendaritza-batzordeak onetsita.
- Onetsitako egitasmoei ekiten diete eta egitasmoen ebaluazio-txostenak egiten dituzte.

**Zuzendaritza-batzordea** eratzea (aukerakoa da) erabaki bada, zeregin hauek izango ditu:

- elkartearen kudeaketaren ardura hartzen du bere gain;
- erakundearen ordezkaria da, elkartekideen aurrean eta hirugarrenen edo gainerako erakundeen aurrean;
- batzar nagusiari kudeaketaren balantzea eta jarduteko proposamena aurkeztu behar izaten dio hurrengo ekitaldirako, baita elkartearen kontuen egoera eta datorren urterako aurreikusi den aurrekontua ere.

Ordezkaritza- eta aginte-organoek ordainsaria jaso dezakete, Estatutuetan hala ezarri bada.

1.  
2.  
3.  
4.  
5.  
6.  
7.  
8.  
9.  
10.

## 4. Erregistratzeko behar izango ditugun agiriak

Erregistratzeko eskabidea bete eta aurkeztea izango da lehen urratsa. Eratze-aktan ordezkari agertzen dena arduratuko da horretaz. Honako hauek adieraziko ditu:

- **eskatzailearen datuak:** izena, kargua edo jarduteko izaera, IFZ, helbidea, telefono-zenbakia eta sinadura;
- **elkartearen datuak:** izena, helbidea, domeinu-izena edo Internet helbidea eta I.F.K. (eskuratu bada);
- **agiriak eta eskabidea:** eskabidearekin batera doazen agirien azalpena eta egiten den eskabidea.

## 5. Eskabidea aurkeztuko dugu

Bete eskabidea eta joan erregistratzera. Inskripzioa doakoa da. Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan egiten da (Kale Nagusia 85. Bilbo, etxabea). Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Elkarteen Erregistroan **erregistratzeko eskabidea.** Eratze-aktan izendatutako pertsonak sinatu beharko du.

- **Eratze-aktaren bi kopia,** bazkide sortzaileen sinadura originalekin.
- **Zuzendaritza-organoen (baleude) osaera.**
- Bazkide sortzaileen **N.A.N.en kopia.**
- **Estatutuen bi kopia.** Zuzendaritza-batzordeko edo organo baliokideko presidentearen eta idazkariaren sinadura originalak egon beharko dira orrialde guztietan.

## 6. Berretsi egingo digute

90 eguneko epearen barruan, estatutuak konpultsatuta daudela jakinaraziko zaio elkarteari. Orduz geroztik, erakundea ofizialki erregistratuta egongo da. Jakinarazpenean elkartearen inskripzio-zenbakia agertuko da. Agiri hau edozein izapide administratibo egiterakoan eskatuko da, esaterako, diru-laguntzaren bat eskatzerakoan.

1.  
2.  
3.  
4.  
5.  
6.  
7.  
8.  
9.  
10.

## 7. Liburuak zigilatuko ditugu

Jakinarazpena jaso ondoren, Erregistro horretan elkartearen hiru liburuak zigilatuko ditugu, baliodunak izan daitezen. Hauek dira liburuok:

- **elkartekideen liburua:** elkartekideen alten eta baje erregistroa idatziko da, euren izen-abizenak, N.A.N.ak, helbidea eta sinadura adieraziko direla;
- **akten liburua:** elkartearen bilera nagusien aktak jasoko dira, esaterako, batzar nagusiaren bilerenenak;
- **kontuen liburua:** elkartearen sarrerak eta gastuak idatziko dira, bai eta urteko saldoa ere.

Liburuok edozein tabako-dendatan edo liburu-dendatan daude salgai. Datu informatizatuak izanez gero, 100 folio zigila daitezke liburu bakoitzeko, folioak elkartearen izenarekin eta dagokion liburuaren izenarekin zenbatuko direla koerlatiboki.

## 8. I.F.K. emango digute

Elkartea pertsona juridiko bilakatu da; hurrengo urratsa, hortaz, identifikazio fiskaleko kodea (I.F.K.) lortzea izango da, legezko edozein izapide egiteko behar izango duguna, hala nola,

elkartearen izenean kontu korrontea irekitzeko. Oso erraza da jardunbidea: nahikoa izango da Ogasun Ordezkaritzara joatea eta eskabidea egitea.

Agiri hauek aurkeztu beharko ditugu:

- eratzte-aktaren originala eta 2 kopia, izendapenak eta karguak adieraziz;
- erregistroan erregistratu delako ebazpenaren originala eta 2 kopia;
- estatutuen originala eta 2 kopia;
- I.F.K. eskabidea beteta, letra larrietan eta presidenteak sinatua;
- presidentearen N.A.N.en fotokopia.

## 9. Bankura joango gara

Komenigarria da elkartearen beraren kontu korrontea irekitzea, eragiketetan partikularren izenak agertu beharrean, elkartearen izena ager dadin. Kontu korrontea irekitzeko, bankuan edo aurrezki-kutxan agiri hauek aurkeztuko dira:


- erregistratu diren, edo izapidetzen ari diren (kasu honetan, erregistroan sartu delako zigiluarekin) estatutuen kopia;
- I.F.K.ren kopia;
- elkartearen akta, aginte-organoko bi karguri kontu korrontearen titularrak izateko ahalordea emateko (gomendagarria da, baimena duten pertsonen artean presidentea edo diruzaina egotea).

## 10. Eta oraindik, badaude beste erregistro batzuk

**Udal Erregistroak.** Udalerrri batzuek badituzte euren erregistroak eta, erregistro horietan erregistratzea nahitaezkoa ez bada ere, baldintza beharrezkoa izaten da udalak ematen dituen diru-laguntzak eskuratzeko. Erregistro horietan erregistratzeko, elkartearen egoitza udalerrian egotea eskatzen da, baita jarduketaren eremua udalerria izatea eta aldeaz aurretik Eusko Jaurlaritzako Erregistroan erregistratzea ere.

**Boluntariotzako Elkarteen errolda.** 169/2000 Dekretuak, irailaren 1ekoak, arautzen du errolda hau. Aukerakoa da errolda, eta boluntariotzari diharduten elkarteenentzat da. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko Sailaren mendekoa da.

**Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa.** Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduten duten eta bertan gizarte-zerbitzuak eman ohi dituzten erakundeak, zerbitzuak eta zentroak, publikoak zein pribatuak, erregistratuko dira erregistro honetan.



1. Il faut qu'elle soit au moins composée par trois personnes physiques et juridiques.
2. Il faut définir les Statuts en incorporant ce qui suit: le nom de l'organisation; les objectifs et les activités de l'organisation; l'adresse de l'organisation; le territoire d'activité (il ne peut se trouver en dehors de la Communauté Autonome Basque); les conditions nécessaires pour convoquer l'assemblée générale; les conditions requises pour l'élection et la substitution des charges; les conditions pour accepter, radier ou exclure les membres de l'organisation; les normes administratives, de comptabilité et de documentation; la réglementation détaillée; le patrimoine initial; les ressources économiques; les procédures pour modifier les statuts et les motifs pour dissoudre l'organisation et, par conséquent, l'utilisation ou la destination du patrimoine.
3. Une réunion sera convoquée afin de se décider sur la constitution de l'organisation et accepter les statuts, pour choisir les charges et les organes de la direction et rédiger l'acte de constitution. Il y a nécessairement trois charges: le président, le secrétaire et le trésorier. L'organe de la direction le plus commun est le comité directeur ou similaire mais il n'a pas de caractère obligatoire étant donné que les assemblées générales peuvent s'attribuer ses compétences. Les charges de vice-président et de membres du comité sont optionnelles.
4. Il faut exécuter la demande d'inscription: dans la demande, il faudra inclure les données de demandeur et de l'organisation et il faudra indiquer les documents et la demande qui sont présentés.
5. La demande sera présentée au Registre des Associations du Gouvernement Basque (Gran Vía 85. Bilbao, planta baja), ainsi que deux copies de l'acte de constitution, la composition des organes directifs, les Cartes Nationales d'Identité (CNI) de ceux qui la composent et deux copies des statuts.
6. Dans un délai de 90 jours, ils nous indiqueront que les statuts ont été compulsés et ils nous donneront un numéro d'inscription.
7. Dans le Registre, trois livres officiels de l'association seront scellés; le livre des associés, le livre des actes et le livre de comptes.
8. Nous demanderons le Code d'Identification Fiscal à Hacienda (Trésor Public). Pour cela, il faudra présenter l'acte de constitution original et 2 copies, le document original attestant l'inscription sur le Registre et 2 copies, et les Statuts et 2 copies. Le président sera chargé de signer la demande. On devra joindre à la demande, une photocopie de la Carte Nationale d'Identité (CNI) du président.
9. Il faudra ouvrir un compte courant propre à l'organisation. Pour ouvrir le compte, il faut présenter une copie des statuts enregistrés, une copie du CIF et un acte où apparaissent les personnes mandatées.
10. Si vous le souhaitez également, vous pouvez enregistrer l'organisation sur le registre municipal, sur le Registre des Associations du Volontariat et dans le Registre Foral des Services Sociaux de la Députation Forale de Biscaye.

# elkarteen

# Arautegia eta eginbeharrak

arau  
eginbehar

Bi legek dute eragin zuzena elkarteetan: 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Elkartzeko Eskubidea arautzen duena, estatu-eremukoa, eta 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteei buruzkoa.

Elkartea eratzeak, hainbat eginbehar dakar, hala nola...

- ... akten liburua, elkartekideen liburua eta kontuen liburua eguneratuta izatea;
- ... estatutueta ezarritakoa betetzea;
- ... zerga-betekizunak betetzea, baita legezko ondorioen sorburu diren ekintzak egiteagatik dagozkionak ere (esaterako, jarduera ekonomikoak egiteagatik B.E.Z.a aitortu beharra).
- ... datu pertsonalak babesteari arauak betetzea.

Elkarte bat onura publikoko erakundetzat aitortzeko, gutxienez hiru urteko antzintasuna eduki beharko du, eta 2007ko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 42a. artikuluan aipatutako interes orokorreko xedeak izan.

Onura publikoko deklarazioa eskatzeko, elkarteak batzar nagusian, zuzendaritza-batzordean edo aginte-organoan erabakiko du. Horrela erabaki ondoren, dagozkion agiriak aurkeztuko ditu Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan.

Eusko Jaurlaritzak aitortuko du onura publikotzat, Gobernu Kontseiluan, erakundearen xedeen arabera dagozkion sailak proposaturik, erabakitako dekretuaren bidez.

Onura publikoko aitortu diren elkarteek, aipamen hori euren agiri guztietan erabiltzeko eskubidea izango dute, eta zerga-salbuespenak, hobariak, diru-laguntzak eta kasu onartuko diren gainerako ekonomia-, zerga- eta administrazio-onurak izango dituzte.

# Onura publikoko deklarazioa

10

9

8

7

6

5

4

3

2

1

0